

Etxepare lizeoko ikasleak eta hedabideak.

HERRIA astekariaren 70. urtekari, Mattin Larzabal kazetariak, inkesta bat egin zuen Etxepare lizeoko ikasleen artean, hedabideen arrakasta neurtzeko gazteengan. Hau da galde orokorra *"Zein hedabideren bitartez jabetzen zaren aktualitateaz jakitea interesatzen zaigu ? Hedabideak izan daitezen euskaraz edo erdaraz"*.

Beraz galdearen arabera 142 ikasleek aipatzen dituzten hedabideak erabiltzen dituzte. Hona hemen galdeketaren emaitza aipatuenak, euskarazko hedabideak **hizki lodiz** agertzen direlarik.

Prentsa idatzia

Galdea: *Paperezko agerkarietan fidatzen naiz aktualitateaz jabetzeko. Zein ?*

Agerkari idatzi guziak elkarrekin zenbatu ditugu, egunkariak ala astekariak. Agerkari elebidunak (Gara, Enbata) euskalduntzat sailkatuak dira. Aipamenen kopurua erreferenziazat hartuz, arrakastaren araberrako zerrenda hauxe da.

120 irakurle. 25 egunkari eta aldizkari. Orotara 166 aipamen. Banaketa :

*Sud-Ouest 63 aldiz, **Berria-Hitza** 41 aldiz, **Herria** 15 aldiz, L'Equipe 7 aldiz, Le Canard 6 aldiz, **Enbata** 5 aldiz, **Gara** 5 aldiz, **Argia** 3 aldiz, Charlie Hebdo 3 aldiz eta beste 18 agerkari bakoitza irakurle bat edo birekin.*

Lizeoko ikasleetarik 22k diote ez dutela prentsa idatzia erabiltzen. Erran nahi luke 120 irakurleek bana beste egunean egunkari bat irakurtzen dutela eta noizean behin aktualitate aldizkari bat. Zein agerkari ? Iparraldeko egunkari nagusia *Sud-Ouest* da eta ikasleen erdiak irakurle dira, Euskal egunkari bakarra *Berria* da, multzoaren herena irakurle. Euskal aldizkarietan *Herria* da xapeldun 15 irakurlerekin.

Irratiak

Irratien eremuan du euskarak arrakasta handiena gazteekin.

Galdea: *Irratiak entzuten ditut aktualitateaz jabetzeko. Zein irradi ?*

110 entzule. 15 irradi aipatu. 17. 211 aipamen. Aipamenen banaketa :

3 euskal irradiak 67 aipurekin, hauetan **Gure irratia** 32, **Irulegi** 32 aldiz.
3 hegoaldekoak 26 aipurekin, hauetan **Gaztea** 15, **Euskadi irratia** 10 aldiz.
9 frantses irradiak 59 aipurekin, hauetan *France-bleu* 16, *NRJ* 11 aldiz.

Euskarazko irratien arrakasta, askoz erdarazkoena baino handiago da : alde batetik 93 aipamen Ipar eta Hegoaldeko 6 irratiez eta 59 aipamen frantseseko 9 irratieri buruz. Hots irradi emankizunetan %60 euskarazkoen alde. Emaitza miresgarria da.

Euskarazko irratieta *Gure Irratia* eta *Irulegikoa* berdin 32 entzulerekin eta hirugarren lekuan Hegoaldeko *Gaztea* irrati (15). Lehen erraten zen hemengo irratia adinekoentzat zirela. Inkesta honek erakusten du gazteekin ere arrakasta badutela.

Frantsesezko irratieta entzunenak dira bi irrati orokor *France-bleu* (16 aipu) eta *France Inter* (14). Hirugarrena musika irrati bat, *NRJ* (11). Beste irratiek arrakasta guti adibidez *France Info* edo *France Culture* hiruna entzulerekin.

Telebista

Telebistaren eremuan du euskarak arrakasta ahulena gazteekin.
Galdea: *Telebistaren bidez ikasten ditut berriak. Zein telebista ?*

130 ikusle. 21 telebista. 233 aipamen. Aipamenen banaketa :

Hegoaldeko 3 telebista 33tan aipatuak dira, hauetan **ETB1** 27aldiz.
Iparraldeko 18 telebista 200 aldiz aipatuak dira, hauetan *France2*, 46 aldiz,
TF1 43 aldiz eta *France3* 43 aldiz. **Kanaldude**, euskarazko telebista, aldi bat.

Hizkuntzen aldetik egoera nabari da. Hegoaldeko telebita aipatuena, *ETB1*, euskarazkoa da, 27 ikuslerekin. Iparraldeko telebista aipatuena frantsesezkoak dira bereziki *TF1*, *France 2* eta *France 3*, orotara 132 ikuslerekin Gero *Canal +*, 22 ikusle, *BFMTV* eta *M6* bakoitzak 11 ikusle. Ikasle batek *Kanaldude* aipatu du, Iparraldeko telebista euskaldun bakarra. Bitxi da *TVPI* ez dela aipatua, altaba euskarazko emankizun batzu eskaintzen ditu.

Laburbilduz, lizeoko ikasle gutiz gehienek bana beste 2 telebista kate jarraitzen dituzte. Aipatzen dituzten telebistetako emankizunetan %85 frantsesezkoak dira, %14 euskarazkoak eta %1 gaztelaniazkoa.

Internet

Galdea: *Lan eta ikasketetarako Internet baliatzen baitut, han jabetzen naiz ere aktualitateaz. Sare sozialak erabiltzen ditut. Adibidez ?*

142 erabiltzaile. 11 euskal gunea. 10 erdal gune. 2 sare sozial. 147 aipamen.

11 euskal gune 24 aipurekin, hauetan **Kazeta Info** 10 aldiz, **Topatu** 3 aldiz.
10 erdal gune 27 aipurekin, hauetan *Wikipedia* 13 aldiz, *Le Monde.fr* 2 aldiz.
2 sare sozial 96 aipurekin, hauetan *Facebook* 81, *Twitter* 15 aldiz.

Internet komunikabide zabala da. Aktuakitateari begira, 11 webgune eskuaraz eta 10 erdaraz, eskaintza berdintsua da, ba eta erabiltzaileen aldetik ere (24 eta 27 hurrenez hurren). Nahiz hedabide gehienek webgune bat baduten, gure ikasleek ez dituzte biziki erabiltzen. Salbu *Kazeta info* 10 ikaslek aipatu dutena.

Wikipedia entziklopedia bat da, ikasle (eta irakasle) guziek erabiltzen dutena. Hemen 13 ikaslek aipatu dute, baina ez du deus ikustekorik eguneroko aktualitatearekin.

Sare sozialek dute arrakasta handiena. 96 ikasle Facebook edo Twitter sarean daude, hots multzoaren bi herenak. (%68). Gazteek elgarrekin denbora anitz pasatzen dute. Noizean behin, hain segur, aktualitateaz ere mintzatzeko.

Gazteriaren argazki bat

Ikerketa honen ondotik zer argazki atera dezakegu Euskal Herriko gazteriaz ? Etxepare lizeoan 142 neska-multil dabilta, lizeo guzietako programa berdinari jarraitzen dute. Bereztasuna da euskararen murgilduak direla, euskara ikaskuntza, komunikazio eta kultura hizkuntza delarik, beste hizkuntza biziak ere ikasiz. Zer ondorioarekin ? 2014ko ekainean baxoko arrakasta %100ekoa izan zen.

Aktualitateaz jabetzeko biziki ongi tresnatuak dira. Hiru laurdenek sakelako telefonoa badute. Bi herenek Internet sare soziletan daude, nornahirekin zernahitaz komunikatzeko. Lizeotarren erdiak *Sud-Ouest* irakurtzen du, herenak *Berria* eta 15ek *Herria*. Kasik denak aktualitateaz jabetzen dira Iparraldeko *Euskal Irratietarik*, herena *EITB*tik. Denak dira Frantziako telebista nagusien ikusle.

Bakoitzari galdegin zaieolarik zein zen bere "lehen interes puntua aktualitatean" erantzunak oso ezberdinak agertu dira. Hona sailkapen bat arrakastaren arabera eta hautuen zenbakia emanez.

<i>Interesguneen sailkapena</i>	<i>Hautuak</i>
Aktualitate orokorra	31
Kirola	27
Herria, politika	23
Mundu zabala	12
Zientzia-teknologia-kultura	8
Jendartea-ekonomia	5
Orotara	106

Lehen mailan, aktualitate orokorra eta gertakari larriak (31). Gero kirolak (27). Norbaitek erantzun du "dena salbu politika" ! Beste batzuri politika ere interesatzen zaie, Euskal Herrikoa (23) bai eta mundu zabalekoa (12). Lizeo mailako ikaleentzat bitxi da zer arrakasta ahula duten zientzia, teknologia eta kultura gertakariak (5), are gutiago gizarteak eta ekonomiak (5). Halere ulergarri da ikasleek eguneroko gaietarik atera nahi dutela komunikabide zabaleri esker.

Ondorioz, Etxepare lizeoa gure gazteriaren irudia den neurrian, erran daiteke hemengo gaztetxoek anitz baliatzen dituztela euskarazko irratia. Halere telebistan eta Interneten indar handi bat egin behar dugu euskarazko ekoizpena handitzeko eta euskararen aldeko motibazioa indartzeko.

Erramun Bachoc, 2015-07-20